




Kate motzean

◆ Txumari Alfaro • NATUROPATA

«Sendatzeko, maitasuna ezinbestekoa da»

► Nerbioak jota nabil. Zer gomendatzen didazu?

Lasaitzeko onena da behar bezainbeste atsedean hartzea: zazpi ordu lo egin, eta horrez gain, norberarentzat bi ordu hartzea irakurtzeko edo eta musika entzuteko.

► Ni ez nago nerbioak jota lanagatik. Nire arazoa da ilean zolda daukadala, eta zure liburu batean horren aurkako sendabidea bilatu dudalarik, nire gernuarekin ilea igurtzi behar dudala ikusi dut. Ez dakit ...

Bada, zu aztoratzen bazaitu ere, gernua aspaldidanik erabiltzen da medikuntzan. Lehenengo anestesia dentista alemaniar batek egin zuen, gernuaren bitartez. Gernua lasaigarria da. Bestalde, gaur egun nekez aurkituko duzu gernurik ez duen azalarantzako kremarik.

► Amarengandik hasi zinen horrelako sendabideak ikasten, eta bizitza bera zor diozu jakintza horri, ezta?

Umetan, behin, lagunekin jolasean aritu eta bero-bero eginda sartu

nintzen etxean, eta, tronpaturik, baso bat lisiba edan nuen. Amak oreganoa irentsarazi zidan, eta, medikuak gero esan zigunez, horrek salbatu ninduen. Oreganoak lisiba zurgatu zuen, eta horri esker pozoiak ez zituen gainditu hesteetako hormak.

► Nola egin zenuen medikuntza bide horretan aurrera?

Amaren eraginez edo, txiki-txikitatik mediku izan nahi nuen. Ezin izan nituen medikuntza ikasketak egin, baina 23 urterekin medikuntza paraleloa —ez alternatiboa— gehiago ezagutzen hasi nintzen, eta, Kana-
dan eta EEBBetan ikasketak egin nituen.

► Nire lagun bat Iruñeko zure kontsultara joan zen sinusiti kronikoa zuelako, eta betiko sendatu zenuen.

Beste gizon batek, izen handiko Iruñeko klinika batean sinusitiaren aur-

Arguedas (Nafarroa), 1954. Erriberako fenomeno multimedia. Espainiako telebista kateetan arrakasta lortu duen naturopata, iridiologoa eta, batez ere, komunikatzailea. Antena 3en egiten zuen saioa programaziotik kendu berri dute



«Medikuntzan gernua aspaldidanik erabiltzen da»

kako 360 tratamendu saio jaso eta gero, irratira deitu zidan —aspaldi irratian aritzen nintzen— sendabidea eskatzeko. Berbena tortilla egin, zapi fin batean sar-

tu eta bero-bero kope-tan jartzeko esan nion. Handik gutxira osatu zen.

► Beste lagun bat ere joan zen zugana, hileko irregularrak zuela eta. Ez zenuen sen-

datu, eta, haren begi ninia aztertu eta gero, txikitari buruan kolpe handia hartu zuela esan zenion. Ez zitzaien batere gustatu.

Askotan garrantzitsua da batetik zer esaten diozun gaixoari, eta bestetik berak zer ulertzen duen. Bestalde, iridiologia zientzia bat da, Alemanian, Suedian eta beste hainbat tokitan aski ezaguna. Haren oinarriaren arabera, begi ninian islaturik dago gorputz atal guztiei gertatu zaiena, gertatzen ari zaiena eta gertatzen ahal zaiena.

► Medikuntza paraleloan, zer garrantzi du gaixok horretan duen fedea?

Nik esanen nuke %80 dela, medikuntza mota guztietan.

Zenbat ikerketaren arabera, gaixotasunen %90ek oinarri psikosomatikoa dute; hala, medikuarengana joaten diren hamar gaixotatik bost berez osatuko lirakeke, hiru sekula ez dira osatuko

eta sendagileak bi besterik ez ditu osatuko. Sendatzeko tenorean, konfiantza eta maitasuna ezinbestekoak dira.

► Telebistan bide luzea egin duzu, lehenik TVE eta gero Antena 3en. Azken horretan, esperientzia ez da samurregia izan.

Ez. Hasieran, arratsaldean egiten nuen saioa, eta oso arrakastatsua zen. Haatik, kateko arduradun burutsuek erabaki zuten nire saioaren bitartez goizean ikusleak erakartzen saiatzea, eta hortik etorri zen porrota.

► Zure porrotak TVEko osasun saioko buruaren poza eragin du.

Bai, aste honetan saioan polemika pizten saiatu da. Ez dut horretan sartu nahi. Saioa egiten nuelarik, ni egunero mintzagai izaten nintzen hainbat telebista eta irratia saiotan. Bera sekula ez dute inon aipatu, nire aurka egin duen arte.

• Juan Kruz Lakasta •

Arriaga
GASTEIZEN: San Prudentzio, 7
Tel.: 945 14 45 01 - Faxa: 945 13 56 01
San Anton plaza, 7
Tel.: 945 26 90 33 - Faxa: 945 26 22 12
E-mail: Arriaga@jalgi.com

Urretxindorra
BILBON: Iparragirre, 26
Tel.: 94 424 02 28 / 94 424 43 96 - Faxa: 94 424 42 35
E-mail: Urretxindorra@jalgi.com

ORAIN DENAK
BATERA INTERNET-EN

megadenda

www.jalgi.com/megadenda

Martin

DENDA
BAIONAN:
Saint-André plaza
Tel.: 05 59 59 35 14
Faxa: 05 59 25 72 06

Bilintx
DONOSTIAN: Fermin Calbeton, 21
Tel.: 943 42 09 30 - 943 42 00 80 / Faxa: 943 42 23 63
IRUNEN: Colon Pasealekua, 8 - Tel.: 943 63 17 26
TOLOSAN: Arostegieta - Tel.: 943 67 35 33
BERGARAN: Ibargai, 14 - Tel.: 943 76 40 50
E-mail: Bilintx@jalgi.com

Xalbador
IRUÑEAN: Comedias, 14
Tel.: 948 22 41 67 / 948 22 99 81 - Faxa: 948 21 10 61
E-mail: Xalbador@jalgi.com

MEGADENDA

BILINTX

XALBADOR